



UDALBATZARRAK 2022ko MAIATZAREN 31an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2022ko maiatzaren 31an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Concepcion Soria Legua
Unai Sorarrain Urruzola

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Shrabani Aranzabe Pita, Guillermo Jesus Otegi Zubillaga eta Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Aurreko bilkurako aktan onespena.**
- ✓ **2022ko maiatzaren 3an egindako ohiko bilkuraren akta.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **J.D. jaunak eginiko eskaera aztertu.**
4. **Larraulgo udalak eginiko eskaera aztertu.**
5. **Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra hidraulikoetako Departamentua eta Alkizako Udalaren arteko hitzarmenaren onespena, Alkizako hornidura sareko eguneko egoitza hobetzeko lanen finantzaketan laguntzeko.**
6. **Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra hidraulikoetako Departamentua eta Alkizako Udalaren arteko hitzarmenaren azterketa, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriekin sinatutako hitzarmena, udal estalkietan eguzki panel fotovoltaikoak jartzeko autokontsumo partekatuko erregimenean, Tokiko energia komunitateen bidez.**
7. **Alkizako herri eskolako kristalen eta eskailerak garbitzeko kontratuaren esleipena.**
8. **Alkizako Erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak kontratatzeko**



espedientea, baldintza administratibo partikularraren agiria eta baldintza teknikoak onestea, prozedura ireki erraztuaren bidez eta tramitazio arruntaren bidez.

9. Mozioak, erreguak eta galderak.

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2022ko maiatzaren 3an ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 29/2022 Lehendakari Ebazpena eman dela. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

J.D. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA

Ikusirik J.D. jaunak eginiko eskaera, non dioen EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEA-n, AEK-n, 2021/2022 ikasturtean, euskarako ikastaro bat egiten ari dela, B2. euskara eskakizuna ateratzeko. Ikastaroaren kostua 671,00 eurotako izanik, aipaturiko ikastaroa egiteko Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten dio.

Ikusirik Alkizako Udalak herritarren euskaratze prozesua bultzatu nahi duela.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- J.D. jaunak eginiko diru-laguntza eskaera onestea, euskara ikastaroa egiteko, hau da, EUSKARAZ KOOPERATIBA ELKARTEA-n,



AEK-n egiten ari den euskara ikastarorako 671,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA.- J.D. jaunari jakinaraztea, diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo dela:

- 1. Ordainketa: Matrikularen % 50-a, matrikula eta ordainagiria Udaletxe honetan aurkezten dutenean.
- 2. Ordainketa: Ikastaroa amaitzean, gelditzen den % 50-a, Udaletxe honetan asistentzia ziurtagiria aurkezten duenean. Ordainketa hau burutzeko gutxieneko asistentzia % 85a izan beharko da.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri J.D. jaunari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA

Ikusirik Larraulgo Udalak eginiko eskaera, non azaltzen duten abuztuaren 3an San Esteban eguna dela eta hainbat ekitaldi antolatu dituztela eta horretarako 200 aulki uzteko baimena eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalari 200 aulki uztea, Larraulen, San Esteban dela eta antolatu dituzten ekitaldietarako. Aulkiak hartzeko Udal langilearekin harremanetan jarri beharko direlarik.

BIGARRENA: Larraulgo Udalari jakinarazi, aulkiak jasotako egoeran itzuli beharko dituela eta hauek hautsiz gero, berriak ekarri beharko dituela.

HIRUGARRENA: Ebazpen honen berri Larraulgo udalari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

GIPUZKAOKO FORU ALDUNDIKO INGURUMENEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, ALKIZAKO HORNIDURA SAREKO EGUNEKO EGOITZA HOBETZEKOLANAN FINANTZAKETAN LAGUNTZEKO.



Ikusirik, Alkizako Udalak hornidura sareko eguneko egoitza hobetzeko lanak egin behar dituela, honen egoera ez delako batere ona.

Ikusirik, goian aipaturiko lanak egiteko finantzaketan laguntzeko prest azaldu dela Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta obra hidraulikoetako departamentuak, konkretuko 30.000 euroko diru-laguntzarekin.

Ikusirik, diru-laguntza hau arautzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumeneko eta obra hidraulikoetako departamentuak hitzarmen bat prestatu duela.

Ikusirik, Alkizako Idazkari-kontuhartzaile andreak ohartarazten duela, Alkizako Udalak, lan hauek egiteko 2022ko udal aurrekontuetako 33.000 eurotako kontu sail bat duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra hidraulikoetako Departamentua eta Alkizako Udalaren arteko hitzarmenaren onespena, Alkizako hornidura sareko eguneko egoitza hobetzeko lanen finantzaketan laguntzeko.

BIGARRENA: Alkate-lehendakaria ahalmenu aipaturiko hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta obra hidraulikoetako Departamentura erabaki honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTUA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO INGURUMENENKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUKA ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN AZTERKETA, 5.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGOKO UDALERRIEKIN SINATUTAKO HITZARMENA, UDAL ESTALKIETAN AUTOKONTSUMO PARTEKATUKO ERREGINEAN, TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEEN BIDEZ.



Ikusirik, Alkizako Udala interesatuta agertu dela Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra hidraulikoetako Departamentuak, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriekin eginiko hitzarmenarekin, udal estalkietan eguzki panel fotovoltaikoak jartzeko autokontsumo partekatuko erregimenean, Tokiko energia komunitateen bidez.

Ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra hidraulikoetako Departamentuak aurkeztu duela hitzarmen proposamen bat, non Alkizako Udala alde agertzen den zirriborro horrekin.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako udala, ados agertzen dela Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra hidraulikoetako Departamentuak, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriekin eginiko hitzarmenarekin, udal estalkietan eguzki panel fotovoltaikoak jartzeko autokontsumo partekatuko erregimenean, Tokiko energia komunitateen bidez.

BIGARRENA: Alkate-lehendakaria ahalmenu hitzarmena sina dezan eta hitzarmenean agertzen diren diru-kopuruen negoziaketan.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta obra hidraulikoetako Departamentura erabaki honen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI ESKOLAKO KRISTALEN ETA ESKAILERAK GARBITZEKO KONTRATUAREN ESLEIPENA.

Ikusirik Alkizako Herri eskolaren inaugurazioa dela eta, leihoen kristalak eta eskilarek garbitzeko lanak kontratu bidez esleitzeko beharrean agertu dela Alkizako udala.

Ikusirik, aipaturiko lanak egiteko ZU ETA BIOD S.KOOP. enpresari eskatu zaiola aurrekontu bat.

Ikusita Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal ez materialik lan hauek egiteko.



Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua araberako kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.

1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.

En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.

2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º

4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000,00€ azpitik dagoelako.



Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: ZU ETA BIOD S.Koop. enpresari, Alkizako herri eskolako leihoen kristalak eta eskilarak garbitzeko lanen kontratua esleitzea 620,00€ (BEZa kanpo) diru kopuruan, gastua 211.320.00.01 kontu sailaren kontura “Eskolako konponketak” egingo delarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri ZU ETA BIOD S.Koop. enpresei ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO ERRETORE ETXEAN IGOGAILUAREN IPINTZEA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZEN HOBEKUNTZA LANAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA ETA BALDINTZA TEKNIKOAK ONESTEA, PROZEDURA IREKI ERRAZTUAREN BIDEZ ETA TRAMITAZIO ARRUNTAREN BIDEZ

Kontuan harturik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen duela udal mugape honetako Alkizako erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak egiteko kontratua izapidetzea.

Ikusirik Udalaren Zerbitzu Teknikoen txostena, haren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dituen, lizitazioa arautuko duen dokumentazio teknikoan jasoz.

Kontuan hartuz, 2022ko maiatzaren 30eko Alkatezaren Ebazpenaren bidez, obren dokumentazio teknikoa onartu zela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 236.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz (2017SPKL).

Ikusirik kreditu atxikipena, aurrekontuko 1.0000.682.920.00.01 aplikazioaren kontura, 130.055,48 eurokoa, tramitatu beharreko zerbitzuen kontratuaren balio zenbatetsia.



Ikusita obraren zuinketa-akta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017-) 236. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Ikusirik Udal honetako Idazkaritzak emandako txosten juridikoa.

Ikusirik kontratu hori arautuko duten administrazio klausula partikularren orriak onartu direla.

Ikusirik Udal honetako Kontu-hartzaitzak egindako fiskalizazioa.
Ikusirik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, Udalbatza dela kontratazio organo eskuduna.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- Alkizako erretore etxean igogailuaren ipintzea eta irisgarritasun baldintzen hobekuntza lanak egiteko egiteko kontratua prozedura ireki erraztuaren bidez eta tramitazio arruntaren bidez kontratatzeke espedientea onartzea. Kontratuaren balio zenbatetsiari 107.483,87 euro dagozkio, eta 22.571,61 euro jasanarazi beharko zaizkio, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak, eta 16 asteko egikaritze-epea.

BIGARRENA.- Alkizako Udalaren 2022. urteko gastuen aurrekontuko 1.0000.682.920.00.01 aurrekontu-aplikazioaren kargura 130.055,48 euroko gastua onartzea.

HIRUGARRENA.- Obra kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez kontratatzeke baldintza administratibo berezien agiria onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez esleitzeko prozedurari hasiera ematea, eta kontratazio-organo honen kontratatzailearen profilean dagokion lizitazio-iragarkia argitaratzeko agindua ematea, hogeit eguneko epean egoki iritzitako proposamenak aurkez daitezten. 2017 SPKL 159.3).

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**



Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

9.1. ERRETORE ETXEKO BARNETEGIKO ERABILERA-ARAUEN 2022KO MAIATZAK 22KO BERRIKUSPENAREN ONESPENA

Ikusirik Alkizako Erretore etxean dauden Ukraniarren elkarbizitza egokia izan dezaten, Alkizako Udalak Erretore etxeke barnetegiko erabilera-arauen 2022ko maiatzak 22an berrikuspena egin dela, dokumentu honi atxikitzen da.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Erretore etxeke barnetegiko erabilera-arauen 2022ko maiatzak 22ko berrikuspenaren onespena.

HAMARGARREN PUNTUA MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19.50etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK